

30 URTE MIHIGINTZAN

Euskara elkarteek euskararen biziberritzean izan duten eragina 1987-2017

Txerra Rodriguez Gomez
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU), 342 or.
Bilbo, 2020

Hasiera-hasieratik egon naiz lotuta, aldez edo moldez, euskara elkarten mugimenduarekin, eta orain, gainera, Topaguneko lehendakaria izanik, interes handiz, eta ez emozio gutxiagoz, irakurri dut Txerra Rodriguezen tesiaren argitalpena.

Tesian Txerrak euskara elkarten eta Topagunearen historia aztertu du, eta batez ere, mugimenduaren lorpenetan eta hutsuneetan jarri du begirada.

Lana bost atal nagusitan banatu du: ainguratze teorikoa: arlo kontzeptuala, galderak, galderei erantzuna emateko metodologia, galderei emandako erantzunak eta ondorioak. Horiez gain, azken atal bat erantsi du etorkizunari begirako proposamen praktikoekin.



1. irudia. *30 urte mihigintzan* argitalpenaren azala.

Ainguratze teorikoa

Lehen atalean, tesian erabiliko dituen hainbat kontzepturen inguruko argibideak eta definizioak eskaini ditu: hizkuntzen biziberritzea eta hizkuntza-plangintzak, mugimendu sozialak eta interes-taldeak, euskalgintza, euskara elkarteak...

Bere ustez, mugimendu euskaltzalea oso berezia eta bakana da nazioarte mailan. Eta uste dut abiapuntuko ideia hori oso indartsua dela. Ohar gaitezen, guretzat eta gure ekosisteman ohikoa eta arrunta dena, munduan zehar guztiz ezohikoa dela.

Horrek berak lagundu beharko luke, mugimendu euskaltzaleari orokorrean, eta euskara elkarteei konkretuki, duten garrantzia aitortzen.

Euskara elkarteak gizarte-mugimendu dira. Interes publikoko taldeen aldean, militantzia eta lan boluntarioa dago, eta gainera, beren burua horrela hartzen dute, nahiz eta mugimendu sozial «puru»en ezaugarri guztiak ez bete.

Euskalgintza kontzeptuaren inguruko ikuspegi desberdinak ere lantzen ditu, Mikel Ozaitaren definizioa hobetsiz: «Euskararen alde jarduten duten edozein antolakunde sozial edo instituzionalek osatuko lukete» (Rodriguez, 2020: 58).

Eta euskara elkarteak honela definitzen ditu: «Tokian tokiko jendeak eratu ditu tokiko egoeratik abiatuta. Funtzioak (berr)eskuratu nahi dituzte euskaldunentzat eta euskaldunak eroso egongo diren une eta gunekak sortu. Autonomoak dira arlo politikoan, nazionalean eta ekonomikoan eta egitura formalizatua dute» (Rodriguez, 2020: 68).

Galderei emandako erantzunak

Tesia burutzeko, Txerrak, euskara elkarteek eta Topaguneak ekoiztutako testu nagusiak eta mugimenduari buruz idatzitakoa aztertu ditu. Bestetik, sakoneko 26 elkarrizketa burutu ditu, datuen analisirako Delphi teknika erabiliz.

Jorratu dituen aspektu nagusiak honako hauek dira:

a) Euskara elkarten historia

Euskara elkarten eta Topagunearen historiaren mugarri nagusiak zehaztasun handiz bildu ditu Txerrak: mugimenduaren hastapenak, 80ko hamarkadan gertatutako arrakala aurreko epealdia (Iubakien garaia gainditzeko nahia), Kontseilua eta AED (Arrasate Euskaldun Dezagun) sortu aurreko giro soziopolitikoa eta horiekin sortutako bide berriak, Txepetxen lanak ezarri zuen mugarri teorikoa eta euskara elkarten mugimendua hauspotzeko indarra, 90eko hamarkadako euskara elkarten loraldia, hurrengo hamarkadako sendotze eta profesionalizazioa, baina, baita gainbeheraren lehen zantzuak ere, eta 2010eko hamarkadako kongresuak eta berritze estrategikoa.

b) Euskara elkarten taxonomia eta partaideak

Euskara elkarteak zelan sortu ziren azaltzen du, AEDren sorrerak eta Txepetxen teoriak izan zuten efektu biderkatzailea nabarmenduz. Horrekin batera, partaideen ezaugarriak, 2017a bitarteko euskara elkarten kopuruaren bilakaera eta hedapen geografikoa lantzen ditu. Izan ere, elkarteena nahikoa fenomeno irregularra izan da: zona soziolinguistiko euskaldunenetan eta erdaldunenetan presentzia gutxikoa eta, batez ere, 5.000 biztanletik gorako herrietan garatu dena.

d) Zutabe filosofikoak

Zutabe horien artean honako hauek nabarmendu daitezke: Txepetxen teoritik eratorritako euskaldunen trinkotzea, euskaltzaleek osaturiko gune sinbolikoa,

alderdi politikoekeiko autonomia eta elkarlana edo izateko nahiaren eta erabileraren garrantzia. Eta horiekin batera, tokikotasuna, kudeaketari emandako garrantzia, azken kongresuetako Eraldabideetan eta Oinarriparretan zimendutako kontzeptuak, aktibazioa, ahalduntzea...

e) Helburuak

Helburu nagusizat jo daitezke: hizkuntza-komunitatea egituratzea, sendotzea eta elikatzea, erabilera erdigunean jartzea, elkarteak euskaldunen bilgune bihurtzea eta izateko nahia elikatzea.

f) Praktikak

Euskara elkarteek egiteko moduetan ere berrikuntza ekarri zuten egilearen ustez: aktibismo eraginkor zientifikoa, pragmatismoa eta jarrera eraikitzaile, positibo, ausart eta irudimentsua. Beren jarduera egunerokoari eta tokikotasunari lotu zen hasieratik beretik, eta eragile desberdinekiko elkarlana sustatu zuten. Bestalde, ohiko funtzionamenduan boluntarioen eta profesionalen lana uztartu dute. Baina hori lortzeko (edo mantentzeko), finantzazio egonkorra arazo izan da elkarte gehienentzat.

Euskara elkarteek zertan jardun duten ere aletzen du egileak. Lan-esparru nagusi gisa honako hauek identifikatzen ditu: komunitategintza, tokiko hedabideak, kulturgintza, haur eta gazteak, erabilera-programak, euskararako guneak eta uneak sortzea, eragite-lana, mintzapraktika eta aktibazio-programak, aniztasuna, jakintza eta diskurtsoaren sozializazioa... Euskara elkarteak alor horietan zergatik aritu diren ere aztertzen du. Gogoratu behar dugu lehen Euskaraldia burutu aurretik amaitzen dela tesiak aztertu duen epea.

Lan horren garapenean, ordea, elkartearen diskurtsoa zabaltzeko eta transmititzeko zailtasunak antzeman ditu egileak, eta kideen formazio-beharra nabarmentzen du.

g) Emaitzak

Euskara elkartearen lanaren inguruko balorazio orokorra egiterakoan, Txerra Rodriguezek nabarmentzen du sorrerako garaian elkarteek ilusioa, berritasuna eta freskototasuna ekarri zutela, nahiz eta gerora, bere ustez, modu batean edo bestean, ezaugarri horiek kamustu egin zaizkien. Amets handiak zituzten hasieran, baina gutxi lortu dute eragin handia eta gaur egun elkarteek ez dutela emozionatzen aipatzen du (Euskaraldia dela-eta iritzi hau aldatu edo ñabartu ote du?).

Gutxi izan dira garapen oso edo esanguratsua izan duten elkarteak. Nolanahi ere, elkartearen lanak merezi izan du, bestela, egoera okerragoa litzatekeelako. Eta zergatik merezi izan du? Bere ustez, besteak beste, euskaldunon komunitatea trinkotzen saiatu direlako, Euskal Herri osoan zabaldutako autoeraketa-eredurik garrantzitsuena garatu dutelako, sorkuntzarako dispositiboak izan direlako, praktikan era performatiboan jokatu dutelako, eta mugimendu sozialen artean gauzak egiteko modu bat erakutsi dutelako. Jakintza eta diskurtsoaren atalean, berriz, diskurtso berri aglutinatzailea zabaldu dute, elkarbizitza hobetzen lagunduz.

Hutsuneei dagokienez, berriz, hasieran gehiago lortu bazen ere, trinkotzea ez dela orokorrean lortu nabarmentzen du, zerbitzu-eskaintza nagusitu delarik. Euskararen erabilera sustatzeko jaio baziren ere, Txerrak elkarrizketatu dituen pertsona gehienek ustez, eragin txikia izan dute horretan, eta hitzunen eta elkartekideen ahalduntzea gutxi jorratu da (pentsatzen dut Euskaraldien ondoren iritzi horietan aldaketak egon daitezkeela).

Sektorialki jorratu diren alorrak aintzat harturik, iritzi orokorra da hedabideen alorrean, lorpenak handiak izan direla eta haur eta gazteen alorrean egindakoak eragin positiboa izan duela. Kulturgintzari buruz ez dago balorazio argirik eta guneei dagokienez, Bilboko Kafe Antzokia da aipagarriena.

Ondorioak

Egilearen ustez, euskara elkartearen fenomeno politiko da. Oso tokikoa izan da, baina, Topagunearen bidez, batera jotzeko ahalegina ere egin da. Gertuko sareetan jardun dute elkarteek eta beren jardun osoa komunitategintza-eraketak bat bezala uler daitezke.

Txepetxek ekarpen teorikoa praktikan jartzeko ahalegina egin dute, eta neurri batean, baita lortu ere: elkartearen bizitzan euskaldun osoek izan dute garrantzia eta beraiek dira bere askapen-prozesuko protagonista. Beti bilatu dute elkarlanean aritzea eta performatibo jokatu dute: bizi-eredu aurreratzailerak praktikatu dituzte, hau da, hasieratik bizi izan dira euskaraz elkarteak eta elkarteetako kideak.

Berritzaileak izan dira. Estilo berria ekarri zuten mugimendu sozialera eta berrikuntza sozial asko eguneroko praktikara: tokiko hedabideak, hitzarmenak, Kafe Antzokia, mintzapraktika, aktibazio-programak... Enpresa-kulturaren ideiak mugimendu sozialetara ekartzeko eta egitura militantea eta profesionala uztartzen ere lehenak izan ziren.

Euskara elkarteek zituzten amets guztiak ez dira bete, baina aire berria ekarri dute euskararen mugimendura, eta egoera askoz okerragoa izango litzateke, elkarteak (eta Topagunea) sortu ez balira.

Etorkizunari begirako proposamen praktikoak

Hauek dira, tesian oinarrituta, baina bere ekarpen propioa eginez, egileak proposatzen dituen iradokizun nagusiak.

- Norberari dagozkionak: arreta gehiago jartzea kideen zaintzan eta (in) formazioan. Militanteen iritziak eta gustuak aintzat hartzea eta prestakuntza eta harrera-saioak egitea kide berriei.
- Taldeari dagozkionak:
 - Antolaketa-eredu malguagoak eta horizontalagoak.
 - Taldea eraginkorrago bihurtzea.

- Sormenerako gaitasuna lantzea.
 - Finantzazioa egonkortu eta dirulaguntzen menpekotasunetik askatzea.
 - Langile-militante oreka zaintzea.
 - Elkarteek herriko euskalgintzaren abangoardia izatea lortzea.
 - Elkarteen eta Topagunearen arteko harremana aztertzea.
 - Tokiko maila eta maila nazionala ahalik eta orekatuen mantentzea.
- Proiektuari dagozkionak:
 - Trinkotzeaz zer ulertzen dugun argitzea.
 - Kanpoan gertatzen denari adi egon eta moldatzea.
 - Elkarteek politikan eragitea.
 - Beste hizkuntza-komunitateen berri izatea.
 - Esperimentazioa landu eta laborategi izatea.
 - Transmisioa zaindu eta gazteak erakartzea.
 - Lankide publiko-pribatu formula berriak saiatzea.
 - Aliantzak lantzea beste mugimenduekin.
 - Akademia eta aktibitatea gehiago lotzea.

Eskertzekoa da oso Txerra Rodriguez adiskide eta burkideak burutu duen lana. Analisi historikoa guztiz baliagarria izango zaigu Topagunea osatzen dugun kide eta elkarte guztioi, eta etorkizunean inkorporatu daitezkeenei.

Indarguneak eta ahulguneak ere seinalatzen ditu lanak. Horietako batzuk, Topagunearen eta elkarteen egitasmoetan txertatu dira jada, beste batzuei etorkizun hurbilean ekitekotan gara, eta badira hausnarketa eta eztabaida gehiago beharko dutenak. Baina kasu guztietan iradokizun interesgarriak eta aintzat hartu beharrekoak egin dizkigu Txerrak.

Lan honek balio beza, beraz, mugimendua indartzeko eta zabaltzeko, eta ikerketa berriei atea zabaltzeko.

Kike Amonarriz
Euskaltzaleen Topaguneko lehendakaria

